



DBH-KO 4. MAILAKO IKASLEEK BERPIZTE KARDIOPULMONARREKO TEKNIKAK IKASIKO DITUZTE


Beste urte batez, Donostiako Udalak, osasuna sustatzeko atalaren bitartez, DYA eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean, bihotz-biriketako bizkortzeari (BBB) buruzko ikastaro bat antolatu du DBHko 4. mailako ikasleentzat. 22 ikastetxetan emango den ikastaroan 1.300 ikaslek parte hartuko dutela aurreikusten da.

Osasun Publikoko zinegotzi ordezkaria den Iñigo García azaldu duenez, “bihotz-biriketako geldialdia osasun publikoko arazo bat da. Kontuan izan behar da horrelako geldialdien % 80 ospitaletik kanpo gertatzen direla eta geldialdi baten lekuko izan daitezkeen pertsonen % 25ek baino ez dakiela horrelako egoera batean behar bezala laguntzen. Hori dela eta, funtsezkoa da herritarrei prestakuntza ematea, biziraupen tasak igotzea nahi badugu. Ikasleei zuzentzen diegu ikastaroa, uste baitugu berpizteko teknikei eta desfibriladoreen erabilerari buruzko prestakuntza egokia ezinbestekoa dela horrelako kasuetan laguntzeko”.

Denbora faktore erabakigarria da eta azkar jokatu behar da maniobra erraz batzuk erabiliz; maniobra horiek geldialdi kardiorrespiratorioa izan duen biktimaren ondoan daudenek egin behar dituzte. Maniobra horien bidez funtzio kardiobaskularrak ordeztu nahi dira osasun zerbitzuak egoeraz arduratu arte, hau da, protokolo bidezko bizi-euskarri aurreratuko neurriak aplikatu arte, geldialdi kardiorrespiratorioa leheneratzen saiatzeko.

Lekukoek geldialdi kardiorrespiratorio batean behar bezala laguntzeko, aldez aurretik, "biziraupen kate" gisa ezagutzen diren ekintza batzuk egin behar dira; hain zuzen ere, aipatu kateak bost urrats ditu, elkari lotutakoak:

1. Egoera detektatzea.
2. Larrialdi Zerbitzuei abisua ematea, 112 zenbakira deituz.
3. Bihotz masajea egiten hastea.
4. Ahal bada, Kanpoko Desfibriladore Erdi-automatiko bat lokalizatu eta erabiltzea.
5. Larrialdi Zerbitzuak iritsi arte itxarotzea.



1 Erantzuten al du?
Astindu biktima sorbaldeetatik eta galde iezaiozu ozen: "Ondo al zaude?"

2 Normal arnasten al du?
ERANTZUTEN EZ BADU, jarri buruz gora, eta ireki iezaioz arnasbideak, kopeta-kokotseko maniobra eginda, arnasa normal hartzen duen ikusteko.

3 BAI
Jarri **SEGURTASUNEKO ALBOKO JARRERAN** arnasbideak zabalik egon daitezten, eta deitu 112ra.

3 EZ
Deitu 112ra eta hasi berehala **KONPRESIO TORAZIKOAK** egiten. Aireztatzen egiten ez badakizu, egin 100-120 konpresio minutuko.

4 30:2
Aireztatpenak egiten badakizu, txandakatu konpresio torazikoekin (30-2)

5 DEA (desfibriladorea) iristean, piztu, jarri elektrodoak eta egin kasu aparatua jarraibideei.

Nola deskargatu
 ▶ Zuzenean Osakidetzaren ataritik
 ▶ Google Store / Apple Store aplikaziotik, honako hau jarrita: "PCEH" edo "Ayuda a la parada cardíaca" (Bihotz geldialdiari laguntzeko)

APP berria
bihotz geldialdi batekin topo eginez gero jarduteko

Salvar una vida puede estar en tus manos

- ▶ Detecta la situación
- ▶ Llama al 112
- ▶ Haz un masaje cardiaco
- ▶ Localiza un desfibrilador en un lugar público
- ▶ Espera hasta que llegue la ambulancia

2025eko otsailean eta martxoan, aurreko edizioek balorazio positiboa lortu dutenez, Udalak BBB edo bihotz-biriketako bizkortzeari buruzko prestakuntza saioak eskainiko die DBHko 4. mailako ikasleei. Helburua mezu hau helaraztea da: **BBB GUZION erantzukizuna dela, ez bakarrik zerbitzu sanitarioetako pertsonalarena**. Ikasleek saio teoriko baten ostean praktikatzeko aukera izango dute.

laz antolatutako ikastaroetan parte hartu duten ikasleek oso ondo baloratu dute ekimena, bukatutakoan erantzun zuten inkestaren arabera.

Ikasleen % 85ek baino gehiagok adierazi zuten ikastaroa gustatu zitzaiola eta % 92k ulertu zuten erabilgarria izan zitekeela gerta daitezkeen geldialdietan laguntzeko. Ikastaroaren metodologiak, baita iraupenak zein edukiek ere, batez beste 9,5eko balorazioa jaso dute ikasleengandik.



PARTE HARTUKO DUTEN IKASTETXEAK

ZURRIOLA IKASTOLA
SANTO TOMAS LIZEOA
ARANTZAZUKO AMA BHI
MUNDAIZ
PRESENTACIÓN DE MARÍA
ST. PATRICKS
ALTZA BHI
LAUAIZETA BHI
IKASTETXE ALEMANA
EKINTZA
LA ASUNCIÓN
ALDAPETA MARÍA
LUBERRI BHI
LASALLE DONOSTIA
MARÍA REINA
JESUITINAS
THE ENGLISH SCHOOL
SAN LUIS LASALLE
ESKIBEL
HERRI AMETSA
SANTA TERESA
JESUITAS DONOSTIA

22 IKASTETXE, 53 IKASGELA, 1305 IKASLE